

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

NIK, DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA  
JAUNAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENE-  
RAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU  
BATZORDEKO IDAZKARIAK, HONAKO HAU

#### ZIURTATZEN DUT:

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak 2022ko abenduaren 19an eginiko bilera arruntean (5/22 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

**2. gaia.-** 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkion hautaketa-proben deialdiak (oposizio-lehiaketa) onartzea, enplegu publikoa egonkortzeko prozesuaren bidez, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitakoaren babesean.

«**Lehenengoa.-** Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Eskaintzarekin bat etorriz (2022ko maiatzaren 20ko Erabakiaren bidez onartua), Enplegu publikoa egonkortzeko prozesuaren bidezko hautaketa-probetarako deialdia xedatzea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoaren arabera, dagozkion Eranskinetan agertzen diren lanpostuak betetzeko, lehiaketa-oposizioaren prozedurari dagozkionak.

**Bigarrena.-** Deialdi horiek arautuko dituzten oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea. Oinarriok, jasota gera daitezten, eranskin gisa gehitu zaizkio erabaki honi.

**Hirugarrena.-** Oinarriak osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela xedatzea; eta laburtuta, Estatuko Aldizkari Ofizialean, iragarkitaulan eta GUFEn web-orrian.

Ref.- FMR / Letrado Asesor

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA,  
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO  
DEL INSTITUTO FORAL DE ASISTENCIA  
SOCIAL DE BIZKAIA

#### CERTIFICA:

Que la Junta de Gobierno del Instituto Foral de Asistencia Social de Bizkaia, en su reunión ordinaria de fecha 19 de diciembre de 2022, Acta n.º 5/22 aprobó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

**Asunto 2.-** Aprobación de convocatorias de pruebas selectivas, (concurso-oposición), correspondientes a la Oferta de Empleo Público 2022, mediante el proceso de estabilización del empleo público, al amparo de lo previsto en la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

«**Primero.-** De conformidad con la Oferta de Empleo Público del Instituto Foral de Asistencia Social de Bizkaia, aprobada por acuerdo de fecha 20 de mayo de 2022, disponer la convocatoria de pruebas selectivas mediante el proceso de estabilización del empleo público, según lo establecido en la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, para la cobertura de las plazas que figuran en los correspondientes Anexos, y referidas al procedimiento de concurso-oposición.

**Segundo.-** Aprobar las Bases generales y específicas que regirán las indicadas convocatorias que, para su constancia, se incorporan como Anexos al presente Acuerdo.

**Tercero.-** Disponer la publicación de las Bases íntegras, en el Boletín Oficial de Bizkaia, y en extracto, en el Boletín Oficial del Estado, en el Tablón de Anuncios y la Página Web del IFAS.





Laugarrena.- GUFeko gerente jn. gaitzea, deialdi hau izapidetzeko behar diren ebazpen guztiak har ditzan».

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betez, baina dagokion akta onartzetik sor daitezkeen baldintzak gorabehera, honako ziurtagiri hau egiten dut.

Cuarto.- Habilitar al Sr. Gerente del IFAS para la adopción de cuantas resoluciones precise la tramitación de la presente convocatoria».

Y para que así conste, en cumplimiento de lo acordado, y a reserva de los términos que resulten de la aprobación del Acta correspondiente, expido la presente certificación.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA 2022-12-21  
GUFE-REN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA  
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS

